



## GOBERNU BATZARRA

2021.02.23

**Alkatea:**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**

**Begoña Tolosa Mendia  
Nerea Letamendia Belloso  
Xabier Balerdi Tolosa  
Patxi Amantegi Zubiria  
Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria**

**Idazkaria:**

**Begoña Garmendia Vazquez**

**Jarduneko kontuhartzailea:**

**Paulino Alonso Eraso**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko otsailaren hogeita hiru, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

**1 Akta hauek onartzea:**

- 2021eko otsailaren 9ko ohiko bilkurakoa.
- 2021eko otsailaren 12ko ez ohiko bilkurakoa.

**2. Onartzea Tolosako kaleak garbitzeko zerbitzu-kontratuan makinak ekartzean izandako atzerapena-dela eta amortizazioan izandako ondorioak.**

**3. Dekretu hauen berri ematea:**

- 2021/238 Dekretua: 2020/67, 2020/68 eta 2020/69 faktura zerrendak.

**1 AKTA HAUEK ONARTZEA:**

- **2021EKO OTSAILAREN 9KO OHIKO BILKURAKOA.**
- **2021EKO OTSAILAREN 12KO EZ OHIKO BILKURAKOA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2021eko otsailaren 9an eta 12an egindako batzarretako aktak aztertu dituzte. Batzarkideek aho batez onartu dituzte.



## **2. ONARTZEA TOLOSAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZU-KONTRATUAN MAKINAK EKARTZEAN IZANDAKO ATZERAPENA DELA-ETA AMORTIZAZIOAN IZANDAKO ONDORIOAK.**

### **I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Kontratuaren xedea:	Tolosako kaleak garbitzeko zerbitzu-kontratua.
Unitate sustatzailea:	Obra eta Zerbitzuetako Azpisaila
Espedientea:	2020SABI0007

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non udal idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

### **II.- AURREKARIAK**

Lehen.- Tolosako Udaleko Obrak eta Zerbitzuetako Azpisaileko teknikariak 2020ko uztailaren 16an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion.

Bigarrena.- ABPPren I. eranskinaren 8. puntuan hau zehazten zen:

8.- Egikaritze-epe eta -lekua. (9., 10. eta 53. klausulak)

*Lau urteko iraupena izango du, aurreikusitakoaren arabera, 2020ko azaroaren 1etik, 2024ko urriaren 31ra arte.*

*Esleipendunak aurrerago esango den makineria guztia kontratuari atxiki behar dionez, eta berria izan behar duenez, gehienez ere bi hilabeteko epea emango da, kontratua esleitzen denetik, esleipendunak bere proposamenean eskaini duen makineria atxikitzeko. Bitartean, kontratua hasten denetik makineria berria atxikitzen den arte, esleipendunak bere baliabideak edo erreserbako makinak erabili ahal izango ditu kontratua gauzatzeko, betiere hura erabiltzeko baldintza ezin hobeeetan badago.*

Hirugarrena.- Behin jardunbide osoa legearen arabera egin ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko azaroaren 24an, UTE TOLOSAKO GARBIKETA 2020 (U028657239) enpresari esleitu zion kontratu hori, 2020ko abenduaren 23an formalizatu zen eta egun horretan bertan sartu zen indarrean.



Laugarrena.- Enpresak konpromisoa hartu zuen, bere proposamena aurkeztuta, ABPPn eskatutako baldintzak beteko zituela eta zerbitzuari atxikiko zizkiola jarraian azaltzen den makineria:

EQUIPOS CON AMORTIZACIÓN OCHO AÑOS (datos en euros)						
Tipo	Coste máquina	Amortización/ Ud.	Financiación/ Ud.	Coste anual/ Ud.	Uds.	Coste total anual
Barredora	116291	14536,5	4190,5	18727	3	56181
Hidrolimpiador y furgoneta	56152	7019	2023	9042	3	27126
Furgoneta	25658	3207	924,5	4131,5	1	4131,5
Baldeadora	126448	15806	4556,5	20362,5	1	20362,5
Carros multifracción	1595	199	57,5	256,5	12	3078
Vehículo encargado	28750	3539	1036	4630	1	4630
Esparciadores sal	6050	756	218	974	5	4870
Soplador eléctrico	1525	190,5	55	245,5	7	1718,5
Walkies	625	78	22,5	100,5	7	703,5
<b>TOTAL ANUAL</b>	<b>122.801,00 €</b>					

Bosgarrena.- Hirigintzako teknikariak enpresaren ordezkariekin urtarilaren 25ean izandako bileraren ondoren, jarraian azaltzen den taula osatu zuen; bertan, zerbitzura atxikitako makineriaren egoera azaltzen da. Ikus daitekeenez, makineriaren gehiengoa urtarilaren 13rako ekarri dute bai berezkoa dena edo alokatutakoa. Ureztatzeko zisterna-kamioia, berriz, uztaile arte ez da hemen egongo, eta, bitartean, alokatutako bat ekarri dute.

SITUACION MAQUINARIA (25.01.2021)								
Ud	Tipo	Plazo habitual fabricación	Fecha disponibilidad Nueva Adquisición	Fecha INICIO SERVICIO Nueva Adquisición	Fecha vehículo sustitución Acordado	Fecha INICIO SERVICIO Vehículo sustitución	Sustitución hasta llegada nueva maquinaria	Comentarios
1	Barredora 2 cepillos	16 semanas	20.01.2021	13.01.2021 ✓	07.01.2021	07.01.2021	Barredora Swingo 200+ de similares características que en la oferta	Han empezado en el servicio el 13.01.2021. El 7.01.2021 se llevaron 2 barredoras nuevas a Tolosa como vehículo de sustitución
1	Barredora 3 cepillos	16 semanas	20.01.2021	13.01.2021 ✓	07.01.2021	07.01.2021	Barredora Swingo 200+ de similares características que en la oferta	
1	Barredora 2 cepillos	16 semanas	15.03.2021		07.01.2021	07.01.2021	Barredora Swingo 200+ de similares características que en la oferta	La nueva barredora está en fabricación. Ha sido sustituida desde el 7.01.2021 por una de similares características que ha dejado el fabricante
1	Camión Cisterna de Riego	Chasis: 5 meses Equipo y carrozado: 10 semanas sobre chasis	30.06.2021 Ros Roca: 15.07.2021		15.01.2021	18.01.2021 ✓	Camión cisterna de riego y baldeo de capacidad 10.000 litros.	El camión baldeador actual puede continuar su servicio hasta llegada del nuevo camión. Se elige Ros Roca. Plazo de entrega 15.07.2021
12	Carros de limpieza	10 semanas	25.01.2021	25.01.2021 ✓				
5	Esparciadores de Sal	Stock	02.01.2021	04.01.2021 ✓				
7	Sopladores de mochila eléctrica	Stock	02.01.2021	11.01.2021 ✓				Puesta en servicio 11.01.2021, llegaron la semana anterior.
1	1 vehículo brigada eléctrico	10 semanas	25.01.2021	Local: 20.01.2021 (pendiente matriculación)				Están en el local desde el 20.01.2021. Pendiente matricular (está en tráfico desde el 20.01.2021) y seguro. Trabajadores formados
1	1 vehículo inspección	4 meses	30.04.2021		15.01.2021		Vehículo de similares características que la oferta	Está en fabricación. No se encuentra alquiler vehículo híbrido
1	1 furgoneta hidrolimpiadora de agua caliente	Chasis: 4 meses + Equipo y carrozado: 10 semanas	15.01.2021	Local: 20.01.2021 (pendiente matriculación) y Seguro.				Furgoneta con hidrolimpiadora de agua caliente en vez de vehículo caja abierta con hidrolimpiadora de agua caliente. Están en el local desde el 20.01.2021. Pendiente matricular (está en tráfico desde el 20.01.2021) y seguro. Trabajadores formados
2	Furgoneta hidrolimpiadora de agua fría	Chasis: 4 meses + Equipo y carrozado: 10 semanas	31.05.2021		25.01.2021	14.01.2021 ✓	Hidrolimpiadora y cúpula de fregado comprado sobre vehículo alquilado.	Hidrolimpiadora nueva, a la espera de llegada de los chasis.

Seigarrena.- Aurreko guztia kontuan hartuz, ondorio argia atera daiteke: 2020ko abenduaren 23tik 2021eko urtarilaren 13ra bitartean ez dira zerbitzura atxiki, kontratuan eskatzen ziren baliabideak; beraz, ezin da kontratu berriaren prezioa ordaindu, zerbitzu "zaharra" jaso baitu Udalak. Horrela, hilabete horretan ez litzateke fakturan ordaindu beharko makineriaren amortizazioa.



Zazpigarrena.- Aurreko guztiaz gain, ABPPren I. Eranskinen 12.1.b) idatz-zatian hau zehazten da:

**b) Lokala**

*Zerbitzu eraginkorra eskaintzeko eta beharrezkoak ez diren gastuak eta arriskuak ekarriko lituzketen alferrikako joan-etorriak saihesteko, eta udalerraren erdigunean baldintza egokiak betetzen dituen lokalik ez dagoenez, Udalak berak lagako dizkio enpresa esleipendunari aurreko puntuan deskribatutako ibilgailuak hartzeko instalazioak. Lokal hori Tolosako San Esteban auzoko 20. zenbakian dago. Espedienteari erantsi zaio lokal horren hileko alokairu-kostuaren balorazio-txostena, horren zenbatekoa hilean 1.838,31 eurokoa da. Datu hau, informazio gisa besterik ez da aipatzen.*

*Lokal hori kontratu honen berezko jarduerak egiteko baino ez da erabiliko, eta ezin izango da bertan beste hirugarren batzuekin lotutako jarduerarik egin.*

Horren arabera, adjudikaziodunak jakinarazi dio Udalari alokairu-kostu hori ordaintzeko asmoa; hori kontratuaren iraupen osoan 88.238,88 eurokoa da, baina gaizki-ulertu baten ondorio da, Udalak ez baitzuen kontuan hartu kostu hori kontratuaren azterketa ekonomikoan. Horrenbestez, enpresak ez dio Udalari alokairu-kostu hori ordaindu beharko.

**III.- ONDORIOAK**

Lehena.- 2020ko abenduaren 23tik 2021eko urtarrilaren 13ra bitartean ez dira zerbitzura atxiki, kontratuan eskatzen ziren baliabideak; beraz, ezin da kontratu berriaren prezioa ordaindu, zerbitzu “zaharra” jaso baitu Udalak. Horrela, hilabete horretan ez litzateke fakturan ordaindu beharko makineriaren amortizazioa.

Bigarrena.- Enpresak ez dio Udalari alokairu-kostua ordaindu beharko.

AMORTIZACIÓN OCHO AÑOS		96 meses	3,6030%	4 años	3 años y 11 meses				
Tipo	Coste máquina	Amortización/ Ud.	Financiación/ Ud.	Coste anual/Ud.	Coste anual/Ud.	Uds.	Coste total anual	Coste total anual	
Barredora Schmidt 200	116.291,00	14.536,38	4.189,96	18.726,34	17.165,81	3,00	56.179,02	51.497,43	
Hidrolimpiador Nissan	56.152,00	7.019,00	2.023,16	9.042,16	8.288,64	3,00	27.126,47	24.865,93	
Furgoneta Goupil G4	25.658,00	3.207,25	924,46	4.131,71	3.787,40	1,00	4.131,71	3.787,40	
Baldeadora Iveco	126.448,00	15.806,00	4.555,92	20.361,92	18.665,09	1,00	20.361,92	18.665,09	
Carros multifracción	1.595,00	199,38	57,47	256,84	235,44	12,00	3.082,11	2.825,27	
Vehículo para encargado	28.750,00	3.593,75	1.035,86	4.629,61	4.243,81	1,00	4.629,61	4.243,81	
Esparcidores de sal	6.050,00	756,25	217,98	974,23	893,05	5,00	4.871,16	4.465,23	
Soplador eléctrico	1.525,00	190,63	54,95	245,57	225,11	7,00	1.719,00	1.575,75	
Walkies	625,00	78,13	22,52	100,64	92,26	7,00	704,51	645,80	
TOTAL=122.801€								122.805,50	112.571,71

Para el contrato a 4 años, los equipos se amortizarán a 8 años con el correspondiente efecto en la valoración anual. Los equipos se seguirán amortizando en el contrato de los siguientes 4 años.

La amortización y financiación de la maquinaria a comprar para el contrato de 4 años sería de 122.801 € en cada uno de los primeros 4 años y 122.801 en los siguientes 4 años.

ESKU46b13c30-01d1-449b-a11b-d62160b679cb



inversión	inicial	propuesta
2021	122.805,50	112.571,71
2022	122.805,50	122.805,50
2023	122.805,50	122.805,50
2024	122.805,50	122.805,50

Coste del alquiler que se ahorran al mes	1.838,31
Coste del alquiler que se ahorran al año	22.059,72
<b>Coste alquiler que se ahorran en 4 años</b>	<b>88.238,88</b>

	2021	2022	2023	2024
personal	988.285,10	988.285,10	988.285,10	988.285,10
inversión	112.571,71	122.801,00	122.801,00	122.801,00
costes variables	223.946,30	223.946,30	223.946,30	223.946,30
total ejecución material	1.324.803,11	1.335.032,40	1.335.032,40	1.335.032,40
gastos generales (8%)	105.984,25	106.802,59	106.802,59	106.802,59
beneficio industrial (4%)	52.992,12	53.401,30	53.401,30	53.401,30
TOTAL sin IVA	1.483.779,49	1.495.236,29	1.495.236,29	1.495.236,29
IVA (10%)	148.377,95	149.523,63	149.523,63	149.523,63
TOTAL con IVA	1.632.157,43	1.644.759,92	1.644.759,92	1.644.759,92

<b>Ahorro el primer año</b>	<b>12.602,48</b>
-----------------------------	------------------

Los elementos en vez de quedar amortizados al 50% a la finalización del contrato, habrían quedado amortizados al 48,96% y en el próximo contrato, en vez de amortizar al 50%, habría que amortizar un 51,04%

Horren arabera, eta urtean inbertsioen amortizazio kopurua 122.801 euro hartuta, ikusten da makineria hilabete atzeratze horrek 12.602,48 euroko kostua duela; beraz, Udalak ez du zenbateko hori ordaindu beharko.

Halaber, horrek ekarriko du, kontratu hau bukatzen denean, makineria % 50 amortizatuta egon ordez, % 48,96 egongo dela amortizatuta, eta 2025-2029 urteetan, dagokion kontratistak, % 50 amortizatu ordez, % 51,04 amortizatu beharko duela. Udalarentzat ondorio bakarra izango du: hasierako lau urteetan % 1,04 gutxiago amortizatuko du eta bukaerako lau urteetan % 1,04 gutxiago. Horrela, amortizazioaren zortzi urteetan, eragina nulua izango da.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuz, aipatutako 12.602,48 euro horiei enpresak bere eskaintzan aplikatutako beherapena aplikatu beharko litzaioke (% 5,09) eta, horrela, **11.960,68 euroko kostua da Udalak ordaindu beharko ez lukeena.**

#### IV.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontuan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak, hain zuzen ere.

*1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta*



*administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*

*2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 7.033.636,36 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa da; beraz, Udaleko Osoko Bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Hala ere, 2020ko uztailaren 30ean egindako Osoko Bilkurak onartu zuen, besteak beste, kontratazio jardunbidea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea, eta **Osoko Bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte**, eraginkortasun eta bizkortasun arrazoiengatik, eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz. Horrela, **Tokiko Gobernu Batzarra da organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea Obra eta Zerbitzuetako Azpisaileko teknikariak egindako txostena.

**BIGARRENA.-** Aurrekoaren ondorioz, eta 2020ko abenduaren 23tik 2021eko urtarrilaren 13ra bitartean kontratuan eskatzen ziren baliabideak atxiki ez direnez, arestian egindako kalkuluen arabera, makineriaren amortizazioagatik sortuko liratekeen 11.960,68 euroko kostua ez ordaintzea, eta 2021eko urtarrileko fakturan zenbateko hori gutxitzea.



**HIRUGARRENA.-** Aurrekoaren ondorioz, kontratu hau bukatzen denean, makineria % 50n amortizatuta egon ordez, %48,96 egongo da amortizatuta, eta 2025-2029 urteetan, dagokion kontratistak, % 50 amortizatu ordez, % 51,04 amortizatu beharko du. Udalarentzat ondorio bakarra izango du: hasierako lau urteetan % 1,04 gutxiago amortizatuko du eta bukaerako lau urteetan % 1,04 gehiago. Horrela, amortizazioaren zortzi urteetan, eragina nulua izango da.

**LAUGARRENA.-** Erabaki horiek jakinaraztea kontratistari, Obra eta Zerbitzuetako Azpisailari, Ogasun eta Finantza Administrazioako Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

### **3. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:**

**- 2021/238 DEKRETUA: 2020/67, 2020/68 ETA 2020/69 FAKTURA ZERRENDAK.**

Idazkariak 2021/238 dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2021KFAK0001

#### **ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

**BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak**, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatzetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2020ko honako faktura-zerrenda hauek:

67. zenbakia duena, 54.728,71 eurokoa.

68. zenbakia duena, 47.389,44 eurokoa.

69. zenbakia duena, 10.489,98 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

#### **EBAZTEN DU:**

**LEHENIK.-** Onartzea faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:



67. zenbakia duena, 54.728,71 eurokoa.

68. zenbakia duena, 47.389,44 eurokoa.

69. zenbakia duena, 10.489,98 eurokoa.

**BIGARREN.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,  
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 12:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**





## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2021IGBA0004-2021-02-23 Akta Gobernu batzarra/2021-02-23 Akta Gobernu